

---

## DEBAGOIENEO ESKUALDEAN ZENBAIT UDALERRITAN ESKOLA AGENDA 21 DINAMIZATZEKO LANAK EGITEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA (2008-2009 eta 2009-2010 IKASTURTEA)

---

### 1 KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Eskola Agenda 21 dinamizatzeko lanak egitea ingurumeneko aholkularitza/hezkuntza-enpresa baten bidez Aretxabaleta, Bergara, Elgeta, eta Oñatiko ikastetxeetan 2008-2009 eta 2009-2010 ikasturtean.

### 2 EGIN BEHARREKO LANAK

Enpresa esleipendunak gutxienez ondoren zehaztuko diren lanak egin beharko ditu:

#### a) Prozesuaren antolaketan:

- Udala eta parte hartzen duten Ikastetxeak inplikatu eta dinamizatu dituzten ikastetxe bakoitzeko *Ikastetxeko Ingurumen Batzordearen* (IIB) sortze, parte-hartze eta funtzionamenduan, eta *Eskolak Udalerritan Parte hartzeko Foroan* (EUPF) ere bai. EUPFak ikastetxe bakoitzak egindako proposamenak aztertuko ditu eta aztertuko den eta Udalari aurkeztuko zaion gai edo Ingurumen Aldagai Bereizgarriari (IAB) emango dio lehentasuna.
- EUPFaren bilera gutxienez hiru izango dira urtean: lehena aurkezpena egiteko, azkena dena batera jartzeko eta beste bat Udal Plenoari aurkezteko.
- Eskualde mailan prozesuaren jarraipen eta koordinaziorako finkatzen diren bilera antolatu eta dinamizatu dituzten udalerritan bakoitzean eta ikastetxe bakoitzean lan horiek daramaten martxaz informatuta izango dituztelarik Mankomunitatea eta kontratu honetan sartutako Udalak.
- Kasu bakoitzean egokiena den bilera-lekua aukeratu, gorde eta prestatuko du beharrezko baliabideekin (ikus-entzunezkoak, ordenagailuak, materialak, etab.) eta idazkaritza-lanak egingo ditu (deialdiak egin eta bidaltzea, gairerrendak, bilera monitorizatu eta moderatzea, bilera bakoitzeko txostenak edo aktak idaztea, etab.)

#### b) Diagnostikoaren eta helburuen fasean:

- Aukeratutako IABaz Udal Diagnostikoaren datuen eta txosten teknikoaren laburpena egingo du, aurkezteko modu xume, atsegin eta didaktikoa erabiliz, ikastetxe bakoitzeko partaideen adinera egokitua, ikasgelan erabili ahal izateko bai irakasleek (irakaslearen dokumentazioa) eta bai ikasleek (ikaslearen dokumentazioa), lehentasuna emanaz bisualenak, dinamikoan eta interaktiboan diren metodologiei.

- IIBen eta EUPFaren jarduerak dinamizatu, koordinatu eta antolatuko ditu.
- IABaz hezkuntza-komunitate osoari zuzendutako hitzaldien/solasaldien ziklo bat antolatuko du (hitzaldi/solasaldi bat ikastetxe bakoitzeko).
- Aukeratutako IABari buruzko diagnostikoaren datuak detektatu/identifikatu/interpretatzeko ibilaldi/bisitak prestatuko ditu, eta horiek balioetsi, horiei atxikitako arazoak aztertu eta alternatibak proposatu. Gainera, enpresa esleipenduneko langileek bisita horiek antolatu eta prestatuko dituzte irakasleekin eta ikastetxe bakoitzeko ikasleekin eta irakasleekin joango dira antolaturiko bisita egitera. Bisiten logistika gastuak ez daude kontratu honen barne: garraio kolektiboak, sarrerak, janariak, etab., lizitatzailak hobekuntza bezala ez baldin badituzte proposatzen.
- Parte hartzen duten ikastetxeetako ikasleek diagnostiko alternatiboa egiteko “material estandarrik” landuko ditu, horretarako ibilbide, bisita, inkesta, eztabaida eta abarretan erabiliko diren galdeketak, datuak biltzeko taulak, etab. sortuko dituelarik.
- Parte hartzen duten ikastetxeetako ikasleek diagnostiko alternatiboa egiteko datu-bilketa koordinatuko du eta azken txostena egingo du, udalerriko datuekin eta errealitatearekin alderatuz.
- Helburuak eta jarraipen-adierazleak, egokiak eta kuantifikatzeko modukoak, zehazteko aholku emango du.

c) Ekintza-proposamenak:

- Aukeratutako IABarekin lotuta, bildu eta parte-hartzaileen eskura jarriko du beharrezko informazioa: udal-ekintzen planak/azterlanak, komunitatearen garapen iraunkorrerako proposamenak, jardunbide egokiak edo dauden esperientziak, mundu mailako datuak, etab.
- Aipaturiko alderdi horien garatzeko materialak eta dokumentazioa bildu eta ikasleen adinera eta bisitetara egokituko ditu eta CEIDAK eskaintzen dituen materialekin batera, ikastetxe bakoitzean barruko lana dinamizatzeko ardura dutenei eskainiko dizkie, arduradun horiek koordinatu eta lagunduko dituelarik beren zereginean.
- Ekintza-proposamen posibleak planteatu eta horiei buruz aholku emango du.

d) Ekintzak:

- Azterturiko IAB bakoitzarekin lotuta, intereseko eskola arteko bisita bat gutxienez sustatu eta antolatuko du: enpresa batera, bide publikoko espazio batera, edota Administrazio, Mankomunitate eta abarretara edo horietan

dagozkien instalazioetara egin daitezke. Bisiten logistika gastuak ez daude kontratu honen barne: garraio kolektiboak, sarrerak, janariak, etab., lizitatzailerak hobekuntza bezala ez baldin badituzte proposatzen.

- Azterturiko IAB bakoitzarekin lotuta, eskola arteko lehiaketa bat gutxienez sustatu eta antolatuko du: irudiak, logotipoak, eranskailuak, kartelak, ipuinak edo bestelakoak izan daitezke.
- Azterturiko IAB bakoitzarekin lotuta, sentiberatze-, dramatizazio-, simulazio-jolasak sustatu eta antolatuko ditu parte hartzen duen ikastetxe bakoitzeko saio bat.
- Azterturiko IAB bakoitzarekin lotuta, jardunbide egokien kode bat egingo du Ikastetxeko Ingurumen Batzordekoekin (IIB) batera, baita parte hartzen duen ikastetxe bakoitzean aukeratutako IABaren Kudeaketa Plan bat ere.

e) Komunikazioa:

- Ikastetxeetan kartelen bidez eta informazio-bideetan beste sistema batzuen bidez (CEIDA buletinak, eskola-buletinak, Ikastetxe buletinak, Agenda 21 web orria, udal-aldizkariak, bertako prentsa, irrati eta TB, etab.) proiektuaren hasiera eta, hiru hilero gutxienez, garapena zabaltzea.
- Ikastetxeko Ingurumen Batzorde (IIB) bakoitzaren proposamenak aldizka bildu eta elkartu egingo ditu agiri eta dokumentuetan, blokeka antolatu eta aurkezturiko proposamen, alternatiba eta abarrak balioetsi eta lehentasunak ezarriz, agiri horiek EUPFra, Mankomunitatera eta CEIDARA igorritz.
- Udalak eta Mankomunitatea une oro informatuta izango ditu, baita CEIDA ere, prozesuaren garapenaz.
- Diagnostikoa, ekintza-proposamenak eta aukeraturiko adierazleak azkenean laburpen-dokumentu batean aurkeztuko dizkio Mankomunitateari, Udal Gobernuari eta CEIDARI, eta ekintza horiek eta eskola-diagnostiko alternatiboaren edukia komunikabideetan zabalduko ditu.
- Azken prentsaurreko bat antolatuko du bere alderdi guztietan, eta bertan, eskatzen bazaio, parte hartuko du proiektuaren garapenaren xehetasunen berri emateko.

f) Ebaluazioa:

- Aukeratutako adierazleak eta ekintza-proposamenen egikaritza egiaztatu eta kualitatiboki eta kuantitatiboki neurtuko ditu, bai maila orokorretan eta bai parte hartzen duen Ikastetxe bakoitzeko Kudeaketa Planei buruz; horretaz txostena egin eta parte hartzen duten Ikastetxeei, Udalei, Mankomunitateari

eta CEIDARI bidaliko die, baita enpresei edota inplikaturiko beste administrazio batzuei ere.

- Azken txosten edo oroitidazkia egingo du, bertan parte-hartzaileen datuak eta egindako jarduerak jasoko direlarik.

g) Aholkularitza-enpresaren konpromisoak:

- Prozesu/esperientzian talde tekniko/didaktiko/dinamizatzaile bat izendatu eta mantentzea, baita beharrezko baliabide tekniko eta material guztiak ere (telefonoa, telefaxa, posta elektronikoko helbidea...) eta beharrezko lokomozio-bide pertsonal egokiak (ez taldekoak).
- Lankidetzan estua CEIDAKO langileekin, baita Mankomunitatean eta Udaletan esleitzen zaizkion langileekin ere, eta parte hartzen duten ikastetxeetako arduradunekin.
- Eman edo idatzi beharreko jarduera eta agiri guztiak, baita parte-hartzaileekiko harremanak ere, elebidunak izango dira (euskara-gaztelania).
- Agiriak, jarduerak, materialak, etab. partaideen adinera eta, hala balegokio, haien ezaugarri berezietara egokitutakoak izango dira.

h) Mankomunitateari entregatu beharreko dokumentazioa:

Parte hartzen duten ikastetxeei eta udalei, baita CEIDARI ere, eman beharreko dokumentazioaz gain, esleipendunak gutxienez ondorengo dokumentazioa eman behar dio Mankomunitateari:

- Azken oroitidazkiaren 4 kopia, eskualdean Eskola Agenda 21 dinamizatzeko egin diren ekintza guztiak jasoko dituen.
- Baita ere, prozesuan zehar sorturiko dokumentazio guztiaren kopia bat paperean eta beste kopia bat CDn.

### **3 PARTE HARTZEN DUTEN IKASTETXEAK**

Debagoieneko Mankomunitatearen Eskola Agenda 21 programan parte hartuko duten ikastetxeak 14 izango dira eta ikasle kopurua 4.500 inguru.

Aztertuko den Ingurumen Aldagai Bereizgarria (IAB) aldatu egingo da ikasturte batetik bestera. Era berean, ikasturte bakoitzean desberdina izango da udalerrien arabera. Horrela, Bergara, Elgeta eta Oñatiko ikastetxeetan gai bera landuko da eta Aretxabaletako ikastetxeetan beste gai bat.

Arrasaten, 2008ko apirilaren 7an.

**EGINBIDEA.- Baldintza-Agiri hau Mankomunitate honetako Gobernu Juntak onartu zuen, 2008ko apirilaren 16an egindako bilkuran.**

**Arrasaten, 2008ko apirilaren 17an.  
BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**

**Izpta.: Belén Txintxurreta**